

MOZIOA: ETXEBIZITZA HUTSA MOBILIZATZEKO ETA LEGAZPIN ETXEBIZITZAREN FUNTZIO SOZIALA BERMATZEKO UDAL PLANA

ZIOEN AZALPENA

Etxebizitza duina lortzea Legazpiko arazo sozial nagusienetako bat bihurtu da. Pertsona askok zailtasunak dituzte emantzipatzeko, banatzeko, udalerrian geratzeko edo bizi-proiektu egonkor bat garatzeko, etxebizitza eskuragarri ez dagoelako eta alokairuaren zein erosketaren prezioek gora egin dutelako.

Egoera horrek gazteei eta zailtasun ekonomiko handienak dituzten familiei eragiten die bereziki, eta ziurgabetasuna, prekarietatea eta sustraien galera sortzen ditu. Errealitate horrek talka egiten du udalerrian dagoen etxebizitza huts kopuruarekin; izan ere, etxebizitza-beharra gero eta handiagoa den testuinguru honetan, baliabide hori azpi-erabilita dago. Etxebizitza ez da soilik ondare-ondasun bat, gizarte-kohesioa, ongizate kolektiboa eta herritarrek bizi-proiektu duin bat garatzeko duten eskubidea bermatzeko funtsezko elementua baizik.

Indarrean dagoen legediak tresna fiskalak, arau-emaileak eta esku-hartze publikokoak eskaintzen dizkie administrazio publikoei etxebizitza hutsen mobilizazioa sustatzeko, Gipuzkoako foru-arauan aurreikusitako errekargu fiskalak barne.

Orain arte, hobarrietan soilik oinarritutako politikak ez dute emaitza nahikorik eman. Horregatik, ezinbestekoa da etxebizitza-politika bultzatzea, laguntza-neurriak eta hobariak tresna fiskal eta arau-emaile eraginkorrek uztartuko dituen, betiere segurtasun juridikoa eta interes orokorra bermatuz.

Testuinguru horretan, Legazpiko Udalak protagonismoa hartu behar du etxebizitza hutsa mobilizatzeko eta etxebizitza eskuragarrien parkea zabaltzeko.

ERABAKIAK

Azaldutako guztiagatik, Udalak, osoko bilkuran, lan-mahai bat eratzea erabaki du, ordezkariak duten 4 udal-taldez osatua, honako 3 puntu hauetan jarduteko:

Lehenengoa.

Etxebizitza hutsen errolda eguneratzea eta, udalaren eskumen-esparruaren barruan, etxebizitza mobilizatzeko eta funtzio soziala bermatzeko legezko tresnak aktibatzea, eta, bereziki:

- a) 2026ko Ordenantza Fiskaletan hutsik dauden etxebizitzei Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errekargua berrezartzeko aukera aztertzea.

b) Euskadiko 3/2015 Etxebizitza Legean aurreikusitako etxebizitza hutsen kanona ezartzeko bideragarritasun juridiko, tekniko eta ekonomikoa aztertzea.

c) Etxebizitza bulego bat martxan jartzea, etxe hutsak alokairu-merkatuan sar daitezten errazteko, alokairu eskuragarria eta Bizigune bezalako programak lehenetsiz.

Bigarrena.

Gehienez ere 3 hilabeteko epean, Legazpirako Etxebizitza Plan bat idaztea eta aurkeztea, udal talde politiko guztien parte-hartzearekin, honako hauek ezar ditzan:

a) Etxebizitza hutsaren irizpideei buruzko informazioa.

b) Hartutako neurrien jarraipena, ebaluazioa eta aldizkako eguneratzea egiteko mekanismoak.

c) Etxebizitzak mobilizatzeko ekintza berrien ezarpen-egutegia.

d) Legazpiko egoeraren azterketa eguneratua eta udalerria "eremu tentaldi" (zona tensionada) izendatzeko aukera ebaluatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

e) Udalaren, beste administrazioen, jabeen eta etxebizitza-eskatzailen arteko lankidetzak-ildoak sendotzea.

f) Herritarrek eta kolektiboek Plana egiteko parte hartzeko bideak eskaintzea.

g) Planaren emaitzei buruzko urteko txosten publikoa argitaratzea.

Hirugarrena.


Hirigintza-plangintzaren esparruan, etxebizitza babestuaren eskaintza zabaltzeko eta etxebizitza-politikak Legazpiko biztanleriaren gaur egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeko beharrezkoak diren ekintzak bultzatzea.



Oscar Valbuena

(Legazpiko Berdeak Independientes Udal Taldeko
Bozeramailea)

(Legazpiko Udal Talde Sozialista - Grupo Municipal
Socialista Bozeramailea)



Ibon Alcelay Ugarte

(Legazpiko EH Bildu Udal Taldeko Bozeramailea)



MOZIOA

**GAIA: ETXEBIZITZA HUTSA
MOBILIZATZEKO ETA LEGAZPIN
ETXEBIZITZAREN FUNTZIO SOZIALA
BERMATZEKO UDAL PLANA**

**PROPOSATU DUTENEK: UDAL TALDE
POLITIKOAK EH BILDU, EUSKAL
SOZIALISTAK, LEGAZPIKO BERDEAK.**

OSOKO BILKURA: 2026/05/27

BOZKETAREN EMAITZA:

- ALDE: 13 (EAJ-PNV, EH BILDU, EUSKAL
SOZIALISTAK ETA LEGAZPIKO
BERDEAK).**
- AURKA:**
- ABSTENTZIOAK:**

MOCION

**TEMA: PLAN MUNICIPAL PARA LA
MOVILIZACIÓN DE VIVIENDA VACÍA Y
GARANTÍA DE LA FUNCIÓN SOCIAL DE
LA VIVIENDA EN LEGAZPI**

**PROPONENTES: GRUPOS POLITICOS
MUNICIPALES EH BILDU, SOCIALISTAS
VASCOS, LEGAZPIKO BERDEAK.**

PLENO: 27/05/2026

RESULTADO DE LA VOTACION:

- FAVOR: 13 (EAJ-PNV, EH BILDU,
SOCIALISTAS VASCOS Y LEGAZPIKO
BERDEAK)**
- CONTRA:**
- ABSTENCION:**